

Igorre lagunkoiagoaren ginkana



Aire zabaleko
eremuak eta eraikinak



Garraioa



Etxebizitza



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Herritarren partaidetza
eta enplegua



Komunikazioa
eta informazioa



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

Igorre lagunkoiagoaren ginkana

Diagnostikoa eta emaitzak herritarrei hurbiltzeko, saioetako bat kalean egitea proposatu zen. Hori dela eta, adinekoekiko lagunkoitasunaren aldeko ginkana bat antolatu zen. Hirigunean, diagnostikotik ondorioztatutako hainbat puntu lotzen zituzten panelak ipini ziren, musikarekin eta mahai batekin. Handik abiatuta, hiru taldetan banatuta eta kolore biziko petoak jantzita, adinekoek hainbat ibilbide egin zituzten herrian zehar, eta puntu lagunkoiak eta ez-lagunkoiak adierazi zituzten. Horretarako, aurpegiak zituzten eranskailuak erabili ziren. Parte hartzaileen talde bakoitzak argazki kamera bat zeraman, eta kideetako batek idazkari lanak egin zituen.

1. Erakunde sustatzaileak

Igorreko Udala

Erretiratuen elkarteak

Bizi Batzordea

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

2017. urtean, Igorre lagunkoiago baten aldeko diagnostikoaren fasean murgilduta geundela eta herritarrek ZERTAN ARI GINEN jakin zezaten, herriko adinekoek saio bat egin genuen kalean, ginkana formatuarekin. Hirigunean hasi eta herri osoa zeharkatu genuen.

4. Lurralde eremua

Igorre (Bizkaia)

5. Egoera

Amaituta Hasiera data: 2017ko maiatza. Amaiera data: 2017ko maiatza.

6. Etiketak

Partaidetza, lagunkoitasuna, zahartze aktiboa

7. Helburuak

Proiektu honen helburu orokorrak honako hauek izan ziren: herritarrak sentsibilizatzea adinekoek landutako hainbat gairen inguruan, haien arreta erakartzea eta zertan ari ginen azaltzea, kalean diagnostikoaren praktikotasuna agerian uzteko.

Helburu espezifiko gisa, diagnostikoa egiten zuten adinekoek udalerriko beharrak eta eremu ez-lagunkoiak zuzenean identifika zitzaten lortu nahi zen saioaren bidez.

8. Metodologia

Diagnostikoa egiten lagundu zuen enpresak diseinatu zuen ekintza, adinekoak diagnostikorako foku taldeen saio batean lantzen ari zirena kalean agerian utzi behar zela ondorioztatu baitzuen.

Hiriguneko plaza txiki batean, Udalak haima bat, musika ekipo bat eta diagnostikoan aztertutako gaiei buruzko bi panel jarri zituen.

Agertu ziren adinekoak hiru taldetan banatu ziren (hiru ibilbide desberdin egin ziren herrian zehar). Talde bakoitzak, kolore biziko petoak jantzita eta argazki kamera batez hornituta, idazkari bat izendatu eta leku bakoitzeko gauza positiboak eta negatiboak jaso zituen.

Ibilbideak amaitzean, taldeak hirigunera itzuli eta hurbildutako herritarrekin hitz egin zuten, Igorre ingurune lagunkoia izateko proiektua azaltzeko.

9. Alderdi berritzaileak

Diagnostikoa udalerrian zabaltzeko garaian, jardunbide interesgarria dela uste dugu. Adinekoei agerikotasuna ematen die eta egindako lanaren ondorioak zuzenean ikusteko aukera ematen du.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Parte hartzaileen iritziak bildu ziren.

11. Eranskinak eta estekak

Igorreko Udalaren webgunea: http://www.igorre.net/eu-ES/Zerbitzuak/Participacion/Orrialdeak/participacion_Bizi.aspx